

1.2.3 AZKEN XEDEA

> Zuhaitz genealogikoa



Helburuak

- Ikasitako edukiak eta egitura guztiak erabiltzea.
- Bakarkako lan bat egitea ume bakoitzak zenbat ikasi duen ikusteko.
- Ahozkoa lantzea.

Prozedura

Arbola genealogikoa egin,

- Hezitzaileak, Iratiren eta Beñaten familia oinarritzat hartuta, arbola genealogikoa nola egin azaldu.
- Umeei arbola genealogikoa egiteko fitxak banatu: A fitxan arbola bat dago, B fitxan familia-kideen izenak idazteko laukitxoak.
- Ume bakoitzak bere arbola sortu.

Ahozkoa prestatu

- Umeei "Familia aurkezpen eredu" fitxa banatu.
- Talde handian fitxan idatzita dagoena irakurri eta zalantzak argitu.
- Umeei, fitxari jarraituz, euren familiaren aurkezpena prestatu eta hezitzaileak lagundu eta zuzendu.
- Ume bakoitzak banan-banan bere familiaren aurkezpena egin ahoz.

Oharrak

- Oso garrantzitsua da ume bakoitzak bakarka lan egitea eta hezitzaileak banakako zuzenketetarako denbora hartzea.
- Umeei aukera eman hiztegi-koadernoak erabiltzeko.
- Ez dago zertan ahozko guztiak egun bakarrean egin. Ume bakoitzak egun batean egin dezake eskola hasieran edota eskola bukaeran.